

HARRERA EGIN NAHI DIEGU



Errefuxiatuen krisi delako hau ez da krisi bat, eta ez dauka zerikusirik babes bila da-tozen pertsonekin.

Ez da *errefuxiatuen krisi* bat, ia inori ez baitzaio babesik ematen. Ez da krisia ere, egoera ez delako unean-unekoa, eta ez duelako eskasiarekin zerikusirik. *Errefuxiatuen krisi* delako hau Europaren hondoratze moral eta politikoa da, ez baita oinarrizko eginbehar bat betetzeko gauza: aldi baterako bada ere egoera larrian da-goenari abegi egitea.

Historian oso garai gutxitan pilatu da gaur bezala hainbeste gatazka, hedadurari eta etxetik kanporatu dituzten jende multzoei erreparatuz gero. Sirian, esaterako, biztanleen erdia mugitu da (11 milioi lagun), baina hor dira ere Afganistan, Pakistan, Kurdistan, Ukraina, Ekialde Ertaina, Afrika iparraldeko hainbat herrialde, Sudan, Afrika Erdiko Errepublika, Kongo... 60 milioi pertsonak joan behar izan dute beren etxeetatik, eta gehienek ezin dute sorterritik irten, edota inguruko herrialdeetan atera ezinik daude. Gainera, ez da ahaztu behar arrazoi ekonomikoek bultzatzen dituela beste hainbat milioi migrante. Honez gero erabat ezinezkoa da talde bat eta bestea bereiztea. Bada, milioi horieta-

tik kopuru txiki bat Europara iritsi da, edo iritsi liteke.

Aspaldidanik salatu izan dugu Europa eraikitzerakoan modu akritikoan ontzat eman direla eskuinaren postulatu ekonomikoak. Solidaritatearen aurkako austeritate politikak ondorio ugari izan ditu, besteak beste, arrazismoa eta xenofobia hauspotzea. Orain, zoritxarrez, gauza bera ari da gertatzen desplazatuekin: estatuetakoko gobernuak eta EBko erakundeak zintzo asko jarraitzen diote eskuin muturrak urratzen duten ildoari, sarri sasiko hautes-interesak medio. Migranteak terrorista potentzial edo gure soldatak debalutzeko lehiakide gisa aurkezten dira, eta horrela iritzi publikoa prestatu egiten da mugak ixteko edo deportazioak hasteko. Baina errealitatea egoskorra da: lehenago ere jendea alde batetik bestera multzoka ibili izan da, eta honek ez du etenik izango, Europak nahi beste hesi eraikita ere. Bide batzuk itxiz gero, beste batzuk irekiko dira: horixe ari da uneotan Mediterraneoan gertatzen. Mundu mailako fenomeno honetatik *babestu* nahi izatea solidaritatearen kontra-koa ez ezik ezinezkoa da.

Sindikatu bat gara, eta badakigu zertaz ari garen lanaz edo bizikidetzaz ari garenean. Ez dugu esaten gure kontinentean eta herrian milioika laguni harrera egitea erraza eta zailtasunik gabeko urratsa izango denik. Baina jende hori etorri da edo bidean dago. Eta klase bakarra osatzen dugu, langile klasea. Orain harrera egiteko unea dugu.

***Klase bakarra osatzen dugu,
langile klasea. Orain harrera
egiteko unea dugu, lehenago beste
batzuk gurekin egin zuten bezala***



ELAk bat egin du beste giza-organiza-
zioek –Amnesty International, Caritas, In-
termon Oxfam edota Munduko Medikuek-
egin dituzten salaketekin. Hain zuzen,
gaitzetsi egin du desplazatuak gure herrial-
deetara iristea galarazteko Europar Bata-
sunak eta Turkiak sinatu duten hitzarmena.
Akordio hau immorala da eta nazioarteko
legedia urratzen du. Gainera, jende honen
drama ez da mugak gaindituta bukatzen:
estatu segururen batera iritsitakoan beste
hainbat *barne-muga* topatzen dute (lan eta
bizi prekarioa, pobrezia, bazterketa so-
ziala, eremu berezietan itxita egon beha-
rra, islamofobia, xenofobia...). Hori gutxi ez
eta emakume errefuxiatu askok eta askok
sexu- eta genero-bortizkeria pairatzen
dute; hau benetako pandemia bat da, baina
gure jendartean du kezka handirik eragi-
ten.

Horregatik, europar erakundeei honakoa
exijitzen diegu:

- Berma dezatela asilo-eskubidea.

- Ireki ditzatela bide seguruak gatazke-
tatik ihesi doan jendearentzat.

- Immigrazio-politika komuna erabaki
dadila, *europar gotorlekua* delakoa alde
batera utzita.

- Bere kide diren estatuak premia ditzala
nazioarteko legedia errespetatzera.

- Mundu guztiko gatazka armatuen kon-
ponbidean inplika daitezela, esku-hartze
belikoak baztertuta.

Klase-sindikatu bat gara. Euskal herritar
eta sindikalista garen aldetik gerra, jazar-
pena eta erbestea ezagutu ditugu. Bes-
talde, gerra aurretik eta ondoren gure
artetik milaka pertsonak emigratu zuen
arrazoi ekonomikoen ondorioz. Herri eta
sindikatu garen aldetik pobrezia eta fa-
xismo garaietan bizirauteko nazioarteko el-
kertasuna jaso dugu. Frantzia, Sobiet
Batasuna, Britainia Handia, Mexiko, Vene-
zuela, Argentina... Herrialde ugarik gure
jendea onartu zuen, hori zelako egin beha-
rrekoa.

Sindikalista garen aldetik mezu bakarra
hedatu nahi dugu: harrera egin nahi diegu.
Horregatik eskatzen diegu Iruñeko eta Gas-
teizko gobernuei, baita foru- eta udal-era-
kundeei ere, beharrezko bitartekoak aktiba
ditzatela gure herriak egin dezan beste
batzuk gurekin egin zutena: eskatzen dute-
nei babesa eta aurrera ateratzeko aukerak
eskaintzea, hala nahi izanez gero beren ja-
torriko lekuetara itzultzeko modua duten
arte.

